

URTEKO BIZIKIDETZA PLANA

HARRERA PLANA

DOLORES IBARRURI BHI

014010

ABANTO-ZIERBENA



AURKIBIDEA

Orrialdea

1. AURKEZPENA	1
2. JUSTIFIKAZIOA	1
3. HELBURUAK	2
4. HARTZAILEAK – EKINTZAK	2
4.1. IKASLEEN HARRERA	2
4.1.1. DBHko 1. mailako ikasleak	2
4.1.2. DBHko beste mailetako ikasleak	5
4.1.3. Batxilergoko ikasleak	5
4.1.4. Heziketa Zikloetako ikasleak	6
4.1.5. Ikasturtean zehar datozen ikasleak	6
4.1.6. Ikasle etorkinak	6
4.1.7. Ikasle ijitoak	7
4.1.8. Hezkuntza-premia bereziak dituzten ikasleak	7
4.2. FAMILIEN HARRERA	7
4.2.1. DBHko 1. mailako familiak	7
4.2.2. Gainontzeko DBHko familiak	8
4.2.3. Batxilergoko 1. mailako familiak	9
4.3. IRAKASLEEN HARRERA	10
4.3.1. Ikasturte hasieran	10
4.3.2. Ordezkapenak	10
4.4. IRAKASLE EZ DIREN PERTSONEN HARRERA	11
4.4.1. Administrazioko eta zerbitzuetako langileak	11
4.4.2. Jantokiko langileak	11
4.5. KANPOKO ERAGILEEN HARRERA	11
5.- EBALUAZIOA	12
6.- ERANSKINAK	12
1. ERANSKINA. DBHko 1. mailako ikasleen harrera. Laburpena	13

HISTORIKOA:

Proposamenaren aurkezpena	2011-02-16
Klaustroaren onarpena	2011-06-30
OOGren onarpena	2011-06-30
01. berrikuspena	
Klaustroaren onarpena.....	xxxx-xx-xx
OOGren onarpena.....	xxxx-xx-xx

1.- AURKEZPENA

Dolores Ibarruri BHI ikastetxe publikoa da, A eta D ereduko taldeak daude. Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza, Batxilergoa eta Lanbide Heziketako Goi Mailako ziklo bat eskaintzen dira.

Gallarta auzoan kokatzen da, Abanto-Zierbena udalerrian (Meatzaldean). Gaur egun, hemengo biztanle gehienek inguruko poligono industrialetan eta zerbitzu sektorean lan egiten dute, meatzeak, labe garaiak, ontzigintza eta industria astunak desagertu ondoren. Auzoa trenbidez eta errepidez ondo komunikatuta dago.

Azken ikasturteetan, 450 ikasle inguru daude, horietako, 250k inguru DBH ikasten dute, 100 ikaslek Batxilergoa eta 100 gutxi gorabehera Lanbide Heziketa.

Familia mota ugari agertzen dira ekonomia, kultura eta familia egitura kontuan hartuta. Guraso Elkarteak ikasleak eta familiak ordezkatzeko dituzte.

Irakasleria 50 pertsonaz osatuta dago, bi heren gutxi gorabehera emakumeak dira. Ikasleek dituzten premien arabera beste pertsona batzuk lan egiten dute gure institutuan (IBZko langileak, heziketa laguntzaileak, "AMUGE elkarteak etab)

Administrazioko eta zerbitzuetako langileak 12 pertsona dira.

Gure ikasleek aurkezten duten hezkuntza premia bat eta haien ikasketan arrakasta baldintzatzen duena zera da: lagun-talde baten kidea izatea, gela taldeko kidea izatea eta gure ikastetxeko kidea izatea. Ikasle guztiak integratuta eta hezkuntza komunitate kideak sentitzen direnean elkarbizitza eta ikasketak hobetzen dira. Familiak eta instituturako lan egitera datozen irakasleak ikastetxeko partaideak sentitzeak eragin zuzena du hezkuntza kalitatean.

Dolores Ibarruriko Harrera Plana Bizikidetza Planaren zatia da, gure institutuko elkarbizitza sustatzen dituzte bi printzipio biltzen ditu: hezkuntza-komunitatearen kide guztien partaidetza eta barneratzea. Plan honetan partaidetza helburua eta lan metodologia da. Guztiak komunitatearen kideak senti daitezkeen nahi dugu eta hori lortzeko partaidetza sustatzen dugu. Gure hezkuntza komunitateko kideen gizarte eta kultura aniztasunak guztiok partaide sentitzeko eta ikastetxean lekua izateko beharrak agertzen dizkigu. Barneratze prozesu hau hezkuntza eta ekintza guztietan agertzea nahi dugu.

Harrera Plan honen hartzaileak dira, batez ere, ikasleak, familiak eta irakasleak. Ekintza asko orientabide mintegiak koordinatzen duen Tutoretza Planaren bitartez egiten dira eta beste batzuk bitartekaritza eta gatazken trataera taldeak eta ikasketa burutzak zuzentzen dituzte. Eskola komunitatearen taldeen kideek beraien eginkizuna dute Harrera Plan honen garapenean ikasle, irakasle eta familiekiko harreraren.

2. JUSTIFIKAZIOA

Dolores Ibarruri BHIko Harrera Plana gure Institutuko Hezkuntza Proiektuarekin eta Bizikidetza Planarekin bat dator, Bizikidetza Planaren jasota dauden lan ildoak eta IHPn agerian dauden filosofia eta balioak Harrera Plan honen aurkezpena eta justifikazioa direlarik.

Edozein hezkuntza prozesuan bai irakasleak, ikasleak, familiak eta irakasleak ez diren pertsonen parte hartu behar dute era aktiboan, bai eta inguruko komunitatea ere.

Hori dela eta, inplikaturik dauden sektore guztientzako harrera plan berezia diseinatu da, batetik, gure komunitateko partaide den edozein pertsona aintzat hartuz eta, bestetik, pertsona arteko harremanak sustatzeko beti errespetuzko jarrera izateko eta guztiok garrantzitsuak garela uste osoa izateko hasieratik bideak jarritz. Gainera, komunikazio egokiak pertsonen hezkuntza proiektuan partaidetza eta elkarrekintza errazten duelakoan gaude.

3. HELBURUAK

1. Institutuko elkarbizitza hobetzea.
2. Ikasle guztiek ikasketetan arrakasta lortzen laguntzea.
3. Ikaslea institutuko kidea izatearen sentimendua sustatzea.
4. Ikasle guztiak institutuko eta gelako bizitzan inplikatzeko.
5. Familiek institutuko bizitzan parte har dezaten bultzatzea bai elkarbizitza arloan baita ikaskuntza prozesuan ere.
6. Irakasle berriek eguneroko lanean eta garatzen diren proiektuetan parte har dezatela erraztea.

4. HARTZAILEAK- EKINTZAK

4.1. IKASLEEN HARRERA

4.1.1. DBHko 1. mailako ikasleak

4.1.1.1. Justifikazioa

Etapaz, ikastetxez, irakaslez, ikaskidez eta abarrez aldatzea gehiegi da hamabi eta hamahiru urteko ikasleentzat.

- Arlo desberdin eta gehiago izango dituzte.
- Irakasle gehiago izango dituzte.
- Espazio ezezaguna.
- Desplazamendu luzeagoa.
- Denbora antolaketa desberdina, etab.

Hori dela eta, ikastetxean lan egiten dugunok ahalegina egin behar dugu lehen hezkuntzatik bigarren hezkuntzara igarotzen diren ikasleei harrera maitabera eta afektiboa emateko.

Hasierako egun hauetan gertatuko denak baldintzatuko d ikasleen jarrera positiboa edo negatiboa institutuan.

Harrera ez da izan behar, beraz, ikasleak dagozkien geletan "sartzea"; oso garrantzitsua da harrera saioak ondo planifikatzea eta antolatzea, horri beharrezkoak diren egunak ematen, ikasle berrien zalantzak, kezak, informazio eza eta beldurrak saihesteko.

1.eranskinean DBHko 1. mailako harrera prozesuaren laburpena agertzen da.

4.1.1.2. Helburuak

- 1.- Ikaslea maitekor, bihotzeko eta ulergarri eran hartzea.
- 2.- Lehenengo hilabetean ikaslea laguntzea ikasle laguntzaile baten bidez.
- 3.- Ikasleak ongi moldatzeko behar dituen datuak institutuari, ikasketei eta kurtsoari buruzkoak ematea, institutuko bizitzan ongi moldatzeko.
- 4.- Irakaskuntza-ikaskuntza prozesua aurrera eramateko espazio desberdinen ezagutza erraztea.
- 5.- Ikasleen arteko eta ikasleen eta irakasleen arteko ezagutza eta konfiantza sustatzea.

4.1.1.3. Ikasleekin egiteko ekintzak

4.1.1.3.1. Ikasle laguntzaile berrien hautaketa

Ikasle berrien harrera aurreko ikasturteko maiatzaren bukaeran hasten da ikasle laguntzaile berriak aukeratzen. Lehenengo mailako tutoreek tutoretza bi saioetan gela bakoitzeko 5 ikasle laguntzaile aukeratzeko prozesua lantzen dute.

1. SAIOAN ikasleek beraiek kurtso hasieran izandako bizipena gogoratzeko fitxa bat egingo dute, zer sentitu zuten eta zer hobe daiteke egindako harreran gogoratzuz.

Gero ikasle laguntzaileari buruz, bere funtzioak, ezaugarriak eta abarrez hitz egingo dugu. Gogoratuko dugu nola haietariko bakoitzak bat izan zuen kurtso hasieran eta zein izan zen ikasle laguntzailearen lana.

2. SAIOAN haiiek izandako ikasle laguntzaile taldeak parte hartzen du, haien bizipenak adierazteko eta haien funtzioez eta lanaz hausnarketa egiten dute.

Lehenengo mailako ikasleek dituzten dudak argitzeko galderak egin ahal dituzte, gero gela horretako ikasle laguntzaileak aukeratzen dira.

Botaketa hasi aurretik aukera ematen zaie nahi duenak bere burua hautagai moduan aurkezteko zergatik nahi duen azaltzen.

Ikasle bakoitzak bere gelako bost pertsonen izenak ematen ditu ikasle laguntzaile izateko (bere izena ere idatzi ahal du hautagai bezala)

Botoen kontaketa egiten da eta boto gehien dituzten bost ikasleak ikasle laguntzaileak izango dira (horien artean baten batek ez badu ikasle laguntzailea izan nahi aukera du bere izena ezabatzeko eta boto gehien duen hurrengoak betetzen du utzitako postua).

Horrela, 20 ikasleko taldea izango dugu beraien lehenengo lana ikasle laguntzaile bezala egiteko: IKASLE BERRIEN HARRERA EGITEA.

4.1.1.3.2. Ekaineko 1go bisita prestatzen

Osatu egin den 20 ikasleko ikasle laguntzaileen taldeak formazio saio bat izango du ekainean, udalerriko eskolako 6. mailako ikasleen harrera egiteko.

Institutukoek udalerriko eskolako 6. mailako tutoreak eta ikasleak gonbidatuko dituzte institutua ezagutzeko, horrela, haien tutoreekin etortzean duten beldurra gutxituko da. Halaber, kurtso hasieran erreferentzia positibo bat izango dute.

Horretarako udalerriko ikastetxeetara deitzen da: Askartza Isusi, Etorkizuna Ikastola, El Casal eta Buenos Aires, bisitaren data eta ordua finkatzeko, etorriko diren ikasleen kopurua zehazteko eta egingo diren taldeak antolatzeke.

Lehenengo momentuan gonbidatutako tutoreak eta 6. mailako ikasleak areto nagusian bilduko dira. Bertan zuzendaritza taldeak agurra eta institutuko aurkezpena egin ditu. Geroago, ikasleak ikastetxe bakoitzaren arabera taldekatuz eta erreferentzia irakasle bat eta ikasle laguntzaileen laguntzaz bisita gidatua egingo dute zentrotik.

Lau ibilbide desberdin antolatzen dira ikasleak ez nahasteko. Bidean, ikasle laguntzaileek espazio bakoitzaren aurkezpena egingo dute, dagokion ordutegia, zertarako erabiltzen den eta abar azalduz. Ibilbideak jantokian bukatzen da, bertan ikasle guztiak elkartuko dira antzezlan bat ikusi edo entzuteko, zerbait jateko eta oparitxo bat jasotzeko.

4.1.1.3.3. Kurtso hasiera: iraila

Kurtso hasierako aurreko egunean maiatzean osatutako ikasle laguntzaileen taldea elkartzen da 1. mailako ikasle berrien harrera antolatzeke.

Ikasle berriein egin beharko duten ibilbidea zehaztuko da, zein ikaslez arduratuko dira hasierako hilabeteen eta dagozkien geletara lagundu beharko dituzte.

Zein ikasle berriz arduratuko diren zehazteko, ikasle laguntzaileek beraiek aukeratzen dituzte hasiera batean, gero ekintza honetaz arduratzen den irakasleak beste ikasle batzuen ardura ematen die.

Ikasle laguntzaileen lana irailean hauxe izango da:

- Ikasle berrien harrera egitea kurtsoko lehenengo egunean areto nagusian eta gero dagokien geletara laguntzen.
- Ikasle berriek dituzten galdera eta dudak argitzea.

- Ikasle berrien integrazioa erraztea.
- Bere ongizatez arduratzea.
- Konpondu ezin duten arazoren bat egotekotan irakasleari jakinaraztea.

Klaseko lehenengo egunean DBHko 1.mailako ikasleak eta ikasle laguntzaileak areto nagusian biltzen dira zuzendaritza taldea eta tutoreak ezagutzeko, ongi etorria ematen zaie eta ikasle laguntzaileen artean banatzen dira dagozkien geletara horiek lagun ditzaten, lehen aipatu den moduan.

4.1.1.3.4. Ebaluazioa

Irailaren bukaeran ikasle laguntzaileek burutu duten lana aztertuko da saio batean.

4.1.1.4. Irakasleekin burutzen diren ekintzak

4.1.1.4.1. Lehen hezkuntzako ikastetxekoekin informazio trukaketa

Azken hiruhilabetekoan ikasketaburua eta orientatzailea harrera on bat antolatzeke udalerriko ikastetxeekin kontaktuan jartzen dira.

Lehenengoz LHko 6. mailako tutoreei fitxa bat pasatzen diegu betetzeko, bertan ikasle bakoitzari buruzko informazioa eskatzen da:

- Ezagutza maila, hartutako neurriak eta proposatzen dituztenak.
- Besteekiko harremanak bai bere adinekoekin baita nagusiekin ere, hartutako neurriak eta proposatzen direnak.
- Familiaren eta ikastetxearen arteko lankidetzak.
- Administrazio datuak: beka, garraioa, etab.

Beranduago tutoreekin elkartzen gara ikasle bakoitzari buruz adierazgarria den informazio gehiago jasotzeko ikasle bakoitzaren fitxa osatuz.

Azkenik, ekainaren bukaeran D ereduko ikastetxeko irakasleekin elkartzen gara DBHko 1. mailako taldeak egiteko ondoko irizpideak kontuan hartuz:

- a) Taldeak egiterakoan 6. mailako tutoreen iritzia kontuan hartuko da ondoko aspektuetan: ikasleen arteko harremanak, ikasleen beharrak eta gaitasunak.
- b) Ikasle guztiek bere aurreko taldearen lagunen bat izango du bere gelan.
- c) Errepikatzaileak banatuko dira talde guztietan.
- d) Neska eta mutilen banaketa orekatuta.
- e) Hezkuntza premiak dituzten ikasleen banaketa.

Behin zerrendak eginda, institutuko sarreran jartzen dira ikasturteko aurkezpena baino lehenago, familiak ikusteko eta horiei buruzko galderak eta abar egin ditzaten.

4.1.1.4.2. DBHko 1.mailako tutoreen bilera irailaren 1. astean

Ikasle bakoitzari buruzko informazio guztia koordinatzeko eta konpartitzeko helburua du, baita taldearen artxiboa osatzeko ere.

Bilera horretan ikasle bakoitzari eta taldeari buruz jasotako informazioa komentatzen da, beharrak zehazten dira eta taldean egingo diren ekintzak lehenengo egunean eta irailaren tutoretza saioetan koordinatzen dira.

4.1.1.4.3. Hasierako tutoretza saioak

DBHko tutoretza lehenengo saioetan, eta, beraz, lehenengo mailan ere bai, talde dinamikak, soziogramak eta abar egiten dira bereziki arauak, jarrerak eta ohiturak landuz.

Tutoretza plan horretan ikasle guztien integrazioa lortzeko eta aniztasuna onartzeko ekintza desberdinak garatzen dira. Tutoretza orduan garatzen dira aipatutako saioak. Honez gainera, DBHko 1. mailan elkarbizitza eta ezagutza lantzeko irteera bat egiten da La Arena hondartzara.

4.1.1.4.4. Curriculum hasierako ebaluazioa eta irakasle taldearena

Ikastetxeko ikasle guztien hasierako ebaluazioa eta, beraz, DBHko 1. mailakoak ere bai, klaseko lehen hilabetea bukatu baino lehen egiten da.

Arloko irakasleak bere departamentuko kideekin arlo horri buruz dituzten ezagutzak konprobatzeko frogak eta ekintzak adostuko ditu.

Tutoreak tutoretza saioetan bere gelako ikasle bakoitzari buruzko datu pertsonalak, harremanak eta jarrerazkoak jasotzen ditu.

Urriaren hasieran, gehienetan lehenengo astean, gelako familiekiko bilerak egiten dira.

Bilerak honen ostean tutoreak familia bakoitzarekin elkartzen dira ikasle bakoitzaren txosten pertsonala osatzeko.

Urriaren lehenengo hamabostaldian irakasle taldeak hasierako taldeko ebaluazioa egiten du, bilerak honetan gelako ikasle bakoitzari buruz informazioa komentatzen da eta taldearen portaera ere aztertzen da. Beharrezkoa bada hartu beharreko neurriak zehazten dira taldearen jarrera eta errendimendua hobetzeko.

4.1.2. DBHko beste mailetako ikasleak

DBHko beste kurtsoetako ikasleak zuzenean joaten dira geletara irailean, bertan tutoreak ordutegia, egutegia, irakasleria, oinarritzko arauak eta abar azalduko dizkie.

Matrikula garaian ikasle berriek aukera dute bere familiakoekin batera institutua antolatzen den ateak zabaltzeko egunean etortzeko, instalazioak ezagutzearren, institutuaren hezkuntza eskaintzari eta antolaketari buruzko behar duten informazioa jasotzearren.

Honetaz gain, ikasle berriek beraien etapako instalazioak ezagutzeko aukera dute kurtso hasi baino lehen. Familiak, hala eskatzekotan, elkarriketa bat izan ahal du zuzendaritza taldeko kideren batekin.

Bere gelako ikasle laguntzaileekin lehenengo hilabetean bera laguntzen nor arduratuko den adostuko da.

4.1.3. Batxilergoko ikasleak

Matrikula garaian DBHko erreferentziako ikastetxeetan, eta beti euren ikasketaburuarekin eta orientabide departamentuarekin batera, ondorengo ekintzak antolatzen dira: 4. mailako ikasleentzako elkarriketak beraien institututan ikasi zuen eta gurean batxilergoa ikasten ari diren ikasle-ohiekin, inguruko familientzako bilerak, elkarriketak zuzendaritzakoekin edo orientatzailearekin eta ateak zabaltzeko eguna.

Interesatuta dagoen edozein ikasle matrikula garaian antolatzen den ateak zabaltzeko egunean etor daiteke bere familiarekin batera instalazioak ezagutzera eta behar duen informazio osoa jasotzera, hezkuntza eskaintza eta antolaketari buruzkoa.

Honetaz gain, ikasle berriek beraien etapako instalazioak ezagutzeko aukera dute kurtso hasi baino lehen. Familiak, hala eskatzekotan, elkarriketa bat izan ahal du zuzendaritzako taldeko kideren batekin.

Klaseko lehen egunean irailean batxilergoko ikasleak zuzenean joaten dira geletara dagozkien tutoreekin eta ikasturtea hasteko oinarritzko informazioa jasotzen dute.

Lehenengo aldiz matrikulatzen den ikasleaz bere gelako ikasle laguntzaile bat arduratuko da lehenengo egunetan.

4.1.4. Heziketa zikloetako ikasleak

Ikasle hauen harrera honelaxe antolatzen da:

- Telefonoz deitzen badute, matrikulazio epetik kanpo, informazioa ematen zaie eta haien izena, helbidea eta telefono zenbakia hartzen dira idazkaritzan.
- Heziketa zikloko koordinatzaileak telefonoz deitzen du informazioa osatzeko eta haien galderak erantzuteko.
- Matrikula garaian idazkaritzan hartzen dira bere datuak.
- Elkarriketa bat egitera gonbidatzen dugu, halaber, instalazioak eta ikastetxeko funtzionamendua ezagutzeko aukera izango dute.
- Ateak zabaltzeko egunerako deia egiten zaie.
- Azkenik eskuko telefonoaren zenbakia ematen zaie edozein duda galdetzeko.
- Aukera dute zuzendaritzakoekin elkarriketa bat izateko haien dudak argitzeko.

Klaseko lehen egunean areto nagusian biltzen dira, bertan zuzendaritzakoek, zikloetako koordinatzaileak eta tutoreek harrera egiten diete, oinarritzko informazioa jasoz.

4.1.5. Ikasturtean zehar datozen ikasleak

Eskaera jaso ondoren ordezkarietatik, beste ikastetxetik edo familiaren bitartez hurrengo prozedura jarraitzen dugu:

- Hasierako elkarriketa egiten dugu ikasketaburua, familia eta ikaslea, ikaslearen maila, hizkuntza, familia egoera, etab. ezagutzeko.
- Ikastetxeak prestatu duen informazio karpeta ematen zaie, bertan informazio haeuek daude: funtzionamendua, arauak, guraso elkarte, jantokia, garraioa, eskolaz kanpoko ekintzak, ordutegia, egutegia, beharrezkoa den materiala, etab.
- Aukera dute ikastetxea bisitatzeko.
- Idazkaritzan betetzen dira inprimakiak.
- Idazkaritzatik laguntzen zaie beharrezkoa den dokumentazio ofiziala tramitatzen.
- Taldea eta tutorea esleitzen zaio ikasleari.
- Ikastetxean sarrera errazteko beharrezkoak diren aurkezpenak egiten dira.
- Dagokion gelara bere tutoreak lagunduko du.
- Gela horretako ikasle laguntzaileekin adostuko da nor izango den eguneroko bizimoduan lagunduko diona lehendabiziko hilabetean.

4.1.6. Ikasle etorkinak

Ikasle etorkintzat EAEtik kanpotik datozen ikasleak hartzen ditugu.

Kurso hasieran baldin badator eta gure hezkuntza sistema ezagutzen ez badu aipatutako prozeduraz gain, segun noiz matrikulatzen den, hurrengo ekintzak egiten ditugu:

- Hezkuntza sistema azalduko zaie eta beharrezkoa bada haien hizkuntzan emango zaie azalpen dokumentazioa.
- Ikastetxeko oinarritzko funtzionamendu eta antolaketa arauak azalduko zaizkie. Ikasleak ulertzeko moduan emango zaio informazioa.
- Argi eta era errazean azalduko zaio nola izango dira ikasketak, zein zailtasunak ager daitezke eta izango dituen laguntzak institutuan.
- Gaztelania eta euskararen ezagutzak eskasak badira HIPIren laguntza izango du hizkuntzak ikasteko eta bere taldean arlo batzuetan aritzeko.
- Familiak hizkuntza ezagutzen ez badu itzultzaile baten laguntza izango du, beharrezkoa izatekotan bere herrialdeko ikasle baten laguntza eskatuko genuke informazioa ondo uler dezan.

Oso garrantzitsua da talde aproposenean sartzeko familiak ematen digun informazioa: ikaslearen egoera, interesak eta egindako ikasketak, etab.

4.1.7. Ikasle ijitoak

Ikasle berrien matrikulaziorako arestian aipatutako prozeduraz gain (DBHko 1. mailako ikasleak, epez kanpo matrikulatzen diren ikasleak, ikasle etorkinak, etab.) ikasle hauen familiekiko banakako bilerak egiten dira "AMUGE" erakundekoekin batera, dituzten beldurrak ekiditeko asmoz, sozializazioa eta integrazioa errazteko, familiaren beharrak eta eskaerak ezagutzeko eta etengabeko etorrera hobetzeko.

Beharrezkoa ikusten badugu udalerriko gizarte sailarekin hitz egiten dugu familia bakoitzarekin erabiliko ditugun estrategiak koordinatzeko.

4.1.8. Hezkuntza-premia bereziak dituzten ikasleak

Harrera egokia egiteko asmoz ondorengo prozedura jarraitzen dugu:

- Matrikula egin ondoren, Berritzeguneko talde multiprofesionaleko arduradunarekin batera hurrengo ikasturterako behar bereziak dituzten ikasleen zerrenda egiten da, ikasle bakoitzaren beharrak aztertzen direlarik.
- Kurtsoa hasi baino lehen, aldezturik ikasle horiekin lan egin duten laguntzazko irakasleekin elkartzen gara, informazioa biltzeko eta hartu beharreko neurriak adosteko ikasle bakoitzaren ezaugarriei erantzunik egokiena emateko.
- Kurtsoa hasi baino lehen, familia eta ikaslearekiko bilera egingo genuke ikastetxea eta instalazioak ezagutzeko baita, beharrezkoa izan balitz, espazioen moldaketa aurreikusteko ere.
- Orientabide departamentuak ikasle bakoitzari egokitutako plangintza proposamena aurkeztuko du ikasketaburutzak azter dezan.
- Ikasketaburutzak eta orientatzaileak behar berezietako ikasle bakoitzaren plangintza egingo dute.
- Irailaren lehenengo egunetan eta klaseak hasi baino lehen irakasle taldeari eta tutoreari ikasle bakoitzaren beharrei eta hartutako neurriei buruz informatuko zaizkie.
- Arloko irakasle bakoitzak, pedagogia terapeutikoko irakaslearekin batera, ikasle bakoitzaren curriculum proposamena egingo du eta aurrera eramateko beharrezkoa den materiala antolatuko du.
- Harrera prozesua aurrera egingo du beste ikasleekin egiten den moduan.

4.2. FAMILIEN HARRERA

4.2.1. DBHko 1. mailako familiak

4.2.1.1. LHko ikastetxeetan informazio bilerak

Kurtsoko bigarren hiruhilabetekoan eta aurrematrikula garaian 6. mailako ikasleen familientzat informazio elkarrizketak antolatzen dira. Helburuak ondoko hauek dira:

- Etapa aldaketa dela eta azaltzen dituzten beldurrak argitzea.
- DBHri buruzko informazioa ematea.
- Gure ikastetxeari buruzko informazioa ematea.
- Matrikula prozedurari buruzko dudak argitzea. Horretarako aurrematrikula inprimakiak banatzen dira, matrikula egutegia eta jarraitu beharreko prozedura azaltzen da. Errazteko

aurrematrikula inprimakia haien ikastetxean zein institutuko idazkaritzan aurkeztu ahal dute. Idazkaritzan betetzeko dituzten dudak argituko zaizkie. Bilera horietara ikasketaburutza eta DBHko koordinatzailea joaten dira.

4.2.1.2. Ateak zabaltzeko eguna

Ateak zabaltzeko eguna aurrematrikula garaian egiten da eta ikastetxeetan egindako bilerak osatzen ditu. Familiei begira egiten direnez, familia ugari baina ikasle gutxi etortzen dira.

Ekintzak hiru atal ditu:

- 1. atala: Zuzendaritza taldeak, orientabide departamentuak eta guraso elkartekoek familien harrera egiten dute areto nagusian. Guztion artean informazio garrantzitsuena ematen da eta dudak argitzen dira.
- 2. atala: Ikastetxetik bisita gidatua. Harrera egin duten hezkuntza komunitateko kideek familiak laguntzen dituzte ikastetxeko instalazioak ezagut ditzaten.
- 3. atala: "Lunch" a eta oparia.

4.2.1.3. Matrikulazioa

Gutun bat bidaltzen da, beharrezkoa den informazioarekin matrikula gainazal bat prestatzen da, dudak argitzen dira eta beharrezkoa bada banakako elkarrizketak egiten dira.

Idazkaritzan gutunazalak jasotzen dira eta dokumentazioari buruzko dudak argitzen dira.

Beharrezkoa jotzen badute familiek zuzendaritzakoekin eskatu ahal dute bilera bat.

4.2.1.4. Kurtso hasierako bilera familiarekin

Urriaren hasiera, gehienetan lehenengo astean, familiarekiko lehenengo bilera orokorra egiten da.

Hasiera batean bilera areto nagusian egiten da, bertan zuzendaritza taldeak eta tutoreek familiek hartzen dituzte, funtzionamendu orokorrari buruzko informazioak ematen dira eta gero talde bakoitzeko tutorea bere gelako familiarekin joaten da gelara bilera jarraitzeko. Tutoreak taldeko irakasle-taldeko irakasle baten laguntza izan ohi du.

Helburuak honako hauek dira:

- Tutorea eta hezkuntza taldearen aurkezpena.
- Familien eta ikastetxekoen arteko ezagutza hastea.
- Kurtsoaren oinarritzko funtzionamenduari buruz informatzea. Informazioa biltzen duen karpeta banatzen zaie.
- Familien arteko ezagutza sustatzea.
- Familien proposamenak eta kezkak biltzea.

4.2.1.5. Tutoreekiko elkarrizketak

Familien harrera elkar lanaren abiapuntua da ikasleen integrazioa eta ikasketetan arrakasta lortzeko.

Jarraipen hau egiteko tutoreek astero ordu bat dute familiarekin elkarrizketak izateko eta informazioa elkartrukatzeko, honela ikasle bakoitzaren txostena osatzen da.

4.2.2. Gainontzeko DBHko familiak

Urriaren hasieran, gehienetan, lehenengo astean, familiarekiko lehenengo bilera orokorra egiten da.

Hasiera batean bilera areto nagusian egiten da, bertan zuzendaritza taldeak eta tutoreek familiek hartzen dituzte, funtzionamendu orokorrari buruzko informazioak ematen dira eta gero

talde bakoitzeko tutorea bere gelako familiekin joaten da gelara bilera jarraitzeko. Tutoreak taldeko irakasle-taldeko irakasle baten laguntza izan ohi du.

Helburuak honako hauek dira:

- Tutorea eta hezkuntza taldearen aurkezpena.
- Familiak eta ikastetxekoen arteko ezagutza hasia.
- Kurtsoaren oinarriko funtzionamenduari buruz informatzea. Informazioa biltzen duen karpeta banatzen zaie.
- Familien arteko ezagutza sustatzea.
- Familien proposamenak eta kezkak biltzea.

4.2.3. Batxilergoko 1. mailako familiak

4.2.3.1. DBHko ikastetxeetan informazio bilerak

Kurtsoko bigarren hiruhilabetearen eta aurrematrikula garaian DBHko 4. mailako ikasleentzat zein haien familientzat informazio elkarrizketak antolatzen dira. Helburuak ondoko hauek dira:

- Etapa aldaketa dituzten kezkak entzutea.
- Batxilergorako eta gerorako dauden aukerei buruz informatzea.
- Gure ikastetxeari buruz informatzea.

Elkarrizketak ikasketaburutzak eta orientatzaileak egiten dituzte.

4.2.3.2. Ateak zabaltzeko eguna

Ateak zabaltzeko eguna aurrematrikula garaian egiten da eta ikastetxeetan egindako bilerak osatzen ditu. Familientzat eta ikasleentzat egiten da.

Ekintzak hiru atal ditu:

- 1. atala: Zuzendaritza taldeak eta orientabide departamentuak familien harrera egiten dute areto nagusian. Guztion artean informazio garrantzitsuena ematen da eta dudak argitzen dira.
- 2. atala: Ikastetxetik bisita gidatua. Harrera egin duten hezkuntza komunitateko kideek familiak laguntzen dituzte ikastetxeko instalazioak ezagut ditzaten.
- 3. atala: "Lunch" a eta oparia.

4.2.3.3. Matrikulazioa

Gutun bat bidaltzen da, beharrezkoa den informazioarekin matrikula gainazal bat prestatzen da, dudak argitzen dira eta beharrezkoa bada banakako elkarrizketak egiten dira.

Idazkaritzan gutun-azalak jasotzen dira eta dokumentazioari buruzko dudak argitzen dira.

Beharrezkoa jotzen badute familiek zuzendaritzakoekin eskatu ahal dute bilera bat.

4.2.3.4. Kurtsu hasierako bilera familiakoekin

Urriaren hasieran, gehienetan lehenengo astean, familiarekiko lehenengo bilera orokorra egiten da.

Hasiera batean bilera areto nagusian egiten da, bertan zuzendaritza taldeak eta tutoreek familiak hartzen dituzte, funtzionamendu orokorrari buruzko informazioak ematen dira eta gero talde bakoitzeko tutorea bere gelako familiekin joaten da gelara bilera jarraitzeko. Tutoreak taldeko irakasle-taldeko irakasle baten laguntza izan ohi du.

Helburuak honako hauek dira:

- Tutorearen eta hezkuntza taldearen aurkezpena.

- Familien eta ikastetxekoen arteko ezagutza hastea, matrikulatu berrien ikasleen familien kasuan.
- Kurtsoaren oinarritzko funtzionamenduari buruz informatzea. Informazioa biltzen duen karpeta banatzen zaie.
- Familien arteko ezagutza sustatzea.
- Familien proposamenak eta kezkak biltzea.

4.3. IRAKASLEEN HARRERA

4.3.1. Ikasturte hasieran

4.3.1.1. Informazio bilerak

Kurtso hasieran eta etorri berriak diren irakasleekin bilera bat antolatzen da lantoki berria eta bere lankideak ezagutzeko. Ikastetxea erakusten zaie eta funtzionamenduari buruzko oinarritzko informazioa ematen zaie eta azaltzen dituzten dudak argitzen dira.

Kurtsoko lehenengo astean pertsonal guztientzat "Ongi etorri lunch"a antolatzen da: irakasleentzat eta irakasle ez direnentzat.

4.3.1.2. Irakasle karpeta eta funtzionamendurako oinarritzko materiala

Ikasketaburutzak kurtso hasieran karpeta bat prestatzen du irakasle etorri berrientzat, bertan, lehenengo klaustro ematen den informazioarekin batera ikastetxea ezagutzeko baliogarria dena ematen da: planoak, ordutegiak, egutegia, giltzak, telefono zenbakiak (ikastetxe eta irakasleenak), fotokopiagailua, ordenagailua eta inprimagailua erabiltzeko kodeak, klaustrokideak eta departamentu-kideak, ikastetxeko antolamendua, ikasleen zerrendak, funtzionamenduari buruzko oinarritzko informazioa (zaintzak, huts-egiteak, takila, irakasle gelan jartzen den informazioa, etab.), IHP, ICP, AJA, Bizikidetza Plana eta martxan dauden proiektuak eta abarrei buruzko laburpenak edo azalpenak.

Inguruko jatetxe, hotelak, garraio publikoen ordutegiak, udalerriko gida eta abarrei buruz ere informatzen da.

4.3.2. Ordezkapenak

Kurtsoan zehar ordezkapenak egitera datozen irakasleen harrera honela egiten da:

- Ikasketaburuari jakinarazten zaio irakasle bat bajan dagoela.
- Hezkuntzako Ordezkaritzakoei jakinarazten zaie baja eta horren ezaugarriak (iraupena, arloa, lanpostuaren ezaugarriak, ordutegia eta abar).
- Orokorrean izendatzen duten ordezkoak telefonoz deitzen du institutura. Deia ikasketaburutzan jasotzen da eta lanean hasteko oinarritzko argibideak ematen zaizkio. Zuzendaritzako kide batekin hitz egiteko ordua ematen zaio.
- Zuzendaritzako kideak harrera egiten dio, orokorrean ikasketaburua, posible ez bada zaintzan dagoen zuzendaritza taldekidea.
- Ikastetxeari buruzko informazioa ematen zaio aldez aurretik aipatutako karpetan oinarrituta.
- Atezaintzara laguntzen zaio behar dituen giltzak hartzera.
- Telefono zenbaki bat eskatzen zaio, ikasketaburutzan dagoen ordezkoen zerrenda idazten da bere izena, eta irakasle gelako kortxoan jakinarazten da.
- Argazki txiki bat eskatzen zaio edo momentuan egiten da idazkaritzako zerrendan sartzeko eta irakasle gelako kortxoan jartzeko.
- Bere departamentuko kide bat aurkeztzen zaio, ahal bada departamentuko burua.

- Institutua erakusten zaio.
- Idazkaritzako erregistro fitxa bete eta lanpostuaren jabetza sinatzen du.
- Harrera inkesta ematen zaio.
- Bi egun pasatu ondoren ikasketaburutzak elkarrizketa ez formal baten bitartez jarraipena egiten du.
- Ordezkapena bukatzean ikasketaburutzak giltzak, materiala eta inkesta jasotzen ditu. Ordezkoaren iruzkinak, iradokizunak eta abar jasotzen ditu eta elkar agurtzen dugu.

4.4. IRAKASLE EZ DIREN PERTSONEN HARRERA

4.4.1. Administrazioko eta zerbitzuetako langileak

Ordezkapenik gertatzekotan, hurrengo prozedura jarraitzen da:

- Langile bat bajan dagoela idazkaritza akademikoan jakinarazten da.
- Baja horri buruzko informazioa (iraupena, lanpostuaren ezaugarriak, ordutegia, etab) Hezkuntzako Ordezkaritzakoei jakinarazten zaie.
- Orokorrean izendatzen duten ordezkioak telefonoz deitzen du institutura. Deia idazkaritzan jasotzen da eta oinarritzako azalpena ematen zaizkio lana hasteko. Zuzendaritzako kide batekin hitz egiteko ordua ematen zaio.
- Zuzendaritzako kideak harrera egiten dio, orokorrean idazkariak, posible ez bada zaintzan dagoen zuzendaritza taldekideak.
- Ikastetxeari eta bere lanari buruzko informazioa ematen zaio.
- Institutua erakusten zaio.
- Idazkaritzako erregistro fitxa bete eta lanpostuaren jabetza sinatzen du.
- Harrera inkesta ematen zaio.
- Bi egun pasatu ondoren idazkariak elkarrizketa ez formal baten bitartez jarraipena egiten du.
- Ordezkapena bukatzean idazkariak inkesta jasotzen du. Ordezkoaren iruzkinak, iradokizunak eta abar jasotzen ditu eta elkar agurtzen dugu.

4.4.2. Jantokiko langileak

Kurtso hasieran jantokiko begiraleekin bilera bat egiten da, bertan ondoko dokumentazioa banatuko da: egutegia, familiei bidaltzen zaien jantokiko araudia eta jantokia erabiltzen duten ikasleen zerrenda.

Bilera horretan eginbeharrak eta jantokiaren funtzionamendu arauak ere zehazten dira. Halaber, jarraipen eta ebaluazio bileren egutegia finkatzen da.

Ordezkapen bat gertatzekotan, ordezkioari lanaren iraupena, egin behar duenaren lana, funtzionamendu arauak eta funtzioak azalduko zaizkio.

4.5. KANPOKO ERAGILEEN HARRERA

Kanpoko eragileen harrera (gremioak, merkataritza ordezkariak, sindikatuak, udaletxeak,...) pertsona horren lanarekin harreman zuzenagoa duen zuzendaritza taldekideak egiten du. Batzuetan, eta eskatzaileak horrela eskatzen badu, harremana zuzena da irakasleriarekin (argitaletxeen ordezkariak, adibidez).

Orokorrean lehenengo kontaktua atezaintzan izaten da, geroago, eta posiblea bada, hitzordua jartzen da arreta zuzen egokia izateko.

Beharrezkoa ikusten bada ikastetxeko gainontzeko pertsonetako harremana errazten da.

5. EBALUAZIOA

Harrera plana lehenengo hiruhilabetekoaren eta kurtso bukaeran ebaluatuko da.

Dokumentu honetan jasotako ekintza guztiak betetzea izango da ebaluazioaren adierazlea, baita ikasturte horretan etorri berriak diren ikasleen integrazioa ere.

Ebaluazioa zuzendaritza taldeak eta kurtso bakoitzeko tutore taldeak egingo du orientabide departamentuarekin batera. Horretarako gainontzeko irakasleei eskatuko diete beharko duten informazioa.

Bizikidetza behatokiak ere ebaluazioa egingo du Bizikidetza Planaren ebaluazioaren barruan.

Hobetzeko proposamenak Bizikidetza Behatokiari emango zaizkio Bizikidetza Planen sartzeko.

6. ERANSKINAK

1. ERANSKINA. DBHKO 1. MAILAKO IKASLEEN HARRERA. LABURPENEA.

	EKINTZA	DATA	NORK EGITEN DU	MATERIALAK
1	Kurtso hasieran haiet egindako harreraren ebaluazioa eta ikasle laguntzaile berriak aukeraketa	Maiatzaren azkeneko bi astetan	DBHko 1. mailako tutoreak Ikasle laguntzaileak Orientatzailea	GOGOETA fixak Ikasle laguntzaileak: aurkezpen Power Point
2	DBHko 1. mailako ikasle laguntzaileen taldea sortu eta ekaineko lana antolatatu	Ekainaren 1. astean	Orientatzailea	
3	Udalerriko lehen hezkuntzako 6. mailako ikasleen bisita	Ekainaren 2. astean	Borondatezko irakasleak, zuzen-daritzza taldea, jantokiko langileak, ikasle laguntzaileak eta orientatzailea	labilbidea
4	1Hko tutoreekin bilera informazioa jasotzeko eta DBHko 1. mailako taldeak osatzeko	Ekainaren azken astean	6. mailako tutoreak, DBHko koordinatzailea, PTak, Orientatzailea eta datorren kurtsoko tutoreak	Informazio fixa
5	Zerrendak argitaratzea	Irailaren hasieran	Idazkaritza	Zerrendak
6	DBHko 1. mailako tutoreekin bilera	Irailaren hasieran	Orientatzailea eta koordinatzailea	Fixa
7	Ikasle laguntzaileekin harrera prestatzea	Kurtso hasieraren aurreko egunean	Orientatzailea eta DBHko 2. mailako ikasle laguntzaileak	labilbidea, zerrenda eta aurkezpen fixa
8	Institutuan 1 eguna: aurkezpen lana Tutoreekin gelan egiteko lana	Kurtso lehen egunean	Ikasle laguntzaileak, zuzendaritza taldea, orientatzailea eta DBHko 1. mailako tutoreak	Fixak eta aurkezpen ekintzak
9	Gela bakoitzean, arlo desberdinetan dituzten ezaugarrien ebaluaketa	Irailaren 2. eta 3. asteetan	Arloko irakasleak	Hasierako ebaluaziorako ekintzak
10	Ikasleen integrazioaren jarraipena espazio ez-formaletan	Irailaren zehar	Ikasle laguntzaileak	
11	Bikoizketa geletara eramatea	Irailaren zehar	Arloko irakasleak	
12	La Arena hondartzarako irteera	Irailaren azken astea	Tutoreak, PTak, Koordinatzailea	
13	Taldeko familiekiko bilera	Urriaren hasieran	Tutoreak eta irakasleak	Karpeta
14	Banakako bilerak familiekin	Lehenengo hiruhilabetekoan zehar	Tutoreak	
15	Irakasle taldearen hasierako ebaluazioa	Urriaren lehenengo astean	Irakasle taldea	